

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Nafarroako Volkswagenen araztegi berriaren lehen harria jartzeko ekitaldian izan da

Eguneko 1.845 turismoren baliokide den ekoizpeneko hondakin-urak garbitzeko ahalmena izango du

Lunes, 23 de julio de 2012

Nafarroako Lehendakaria Yolanda Barcina Nafarroako Volkswagenen araztegi berriaren lehen harria jartzeko ekitaldian izan da. Araztegi horrek eguneko 1.845 turismoren baliokide den ekoizpeneko hondakin-urak garbitzeko ahalmena izango du, egungo instalazioak baino 445 gehiago, 80ko hamarkadan eraiki zena.

Iruñeko Landaben industrialdean dagoen Volkswagen-en fabrikaren egindako ekitaldian, honako hauek izan dira, gainera: lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea; Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza eta Nafarroako Volkswageneko zuzendari nagusi Patrick Danau.

Instalazioari esker, proiektatutako pintura-tailer berriarekin batera, ur-kontsumoa % 11,3an murriztuko da, isuriak % 20,3an eta energia-kontsumoa, % 15,04 elektrizitate-kontsumoa eta % 20,68 gas naturalarena. Araztegi fisiko-kimikoa da, sektorean daudenen antzekoa, nahiz eta aurrerapen batzuk dituen, nikelarekin hondakin-urak bereizteko tratamendua,



Barcina Lehendakaria araztegi lehen harri jartzen, Esparza kontseilariaren, Goicoechea lehendakariordearen, Oltza eta Iruñeko alkateen eta Volkswageneko zuzendaritzako kideen alboan.

hauek izan dira, gainera: lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea; Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza eta Nafarroako Volkswageneko zuzendari nagusi Patrick Danau.



Barcina Lehendakaria, Goicoechea eta Danauren alboan, ekitaldian zehar.

esaterako.

Volkswagenen fabrika Nafarroako industria-sareko pieza oso garrantzitsua da. Zuzenean 4.500 pertsonari lan ematen die eta, automobilgintzako sektorean bakarrik, haren inguruan egun bat enpresak lan egiten dute, 8.000 lanpostu inguru sortzen dituztenak. Hau da, haren mende dago, era zuzenean edo zeharka, Nafarroako BPGaren % 4,5.

Galería de fotos



Gobernuko Lehendakari Yolanda Barcina araztegiaren lehen harria jartzeko ekitaldian egindako agerraldian.